

## XEDAPEN OROKORRAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

### 5059

*AGINDUA, 2015eko urriaren 6koa, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak (IKT heldutasuneko ereduak) onartzen dituen, eta ikastetxeetako heldutasun-mailak egiaztatzeko ziurtagiriak eta zigiluak ezartzen dituen irailaren 11ko 174/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzen duena.*

Irailaren 11koak 174/2012 Dekretuak ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak (IKT heldutasuneko ereduak) onartzen ditu, eta ikastetxeetako heldutasun-mailak egiaztatzeko ziurtagiriak eta zigiluak ezartzen ditu.

Azken xedapenetatik lehenak zehazten duenez, hezkuntza-gaietan eskumenak dituen sailburuak eguneratu ahal izango du dekretu honetako eranskina.

Europar Batasunak Digcomp proiektua (Europar gaitasun digitala garatzeko eta ulertzeko esparru-proiektua) hasi zuen 2010ean, Europako herritar guztien gaitasun digitalerako esparru-proposamen bat osatzeko. EBren estatu kideen ordezkariak onartu zuten Hezkuntza eta Prestakuntzako (E&T 2020, 2013ko maiatza) «IKTak eta Hezkuntza» lantalde tematikoan, eta 2013ko irailean azken txostena argitaratu zen: «Digcomp: A Framework for Developing and Understanding Digital Competence in Europe».

Gaitasun digitalak bost arlo hartzen ditu. Gainera, esparruak bost arlo horietako bakoitzerako hogeita bat eskumen zehazten ditu, ezagutzen, trebetasunen eta jokabideen arabera. Hori horrela izanik, eta gure zentroetako errealitate digitala dinamikoa denez, ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak (IKT heldutasuna) eguneratu beharrean gaude; hartara, eredu horren definizio zehatzagoa eta garaikideagoa lortuko dugu.

Horren guztiaren arabera,

#### XEDATZEN DUT:

Ikastetxeetako teknologia-heldutasuneko ereduak (IKT heldutasuneko ereduak) onartzen dituen, eta ikastetxeetako heldutasun-mailak egiaztatzeko ziurtagiriak eta zigiluak ezartzen dituen irailaren 11ko 174/2012 Dekretuaren eranskina eguneratzea.

Agindu honen eranskinak aipatutako dekretuarena ordeztuko du.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean agindu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urriaren 6a.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburua,  
CRISTINA URIARTE TOLEDO.

2015eko azaroaren 26a, osteguna

## IRAILAREN 11KO 174/2012 DEKRETUAREN ERANSKINA

## 1.- Irakaskuntza-prozesuak

Azpiprozesuak	Oinarritzko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua	
1.1.- Programazioa	Irakasleen % 50ek, gutxienez, formatu digital editagarrian egiten du programazioa.	Irakasleen % 75ek, gutxienez, formatu estandarizatuan egiten ditu programazioak, eta ikastetxeko sarean erabili daitezke.	Irakasleen % 95ek koaderno digitalaren bidez prestatzen eta jarraitzen ditu programazioak.	
	1.2.- Memoria	Irakasleen % 50ek, gutxienez, formatu digitaletan egiten du bere mailako eta/edo artoko memoria.	Irakasleen % 75ek, gutxienez, formatu estandarizatuan egiten du memoria, eta ikastetxeko sarean erabili daitezke.	Irakasleen % 95ek formatu estandarizatuan egiten du memoria, eta ikastetxeko sarean erabili daitezke.
Irakaskuntzaren kudeaketa	1.3.- Txostenak eta notak	Ebaluazio bakoitzeko txostenak eta notak formatu digitaletan egiten eta jasotzen dira.	Irakasleek ikastetxeko sarean erabili daitezkeen aplikazio baten bidez kudeatzen dituzte ikasleen notak eta hutsegiteak.	Irakasleek Interneten erabili daitezkeen web-aplikazio baten bidez kudeatzen dituzte ikasleen notak eta hutsegiteak.
	1.4.- Beste dokumentu batzuk	Hairerari, tutoretzari eta, beharrezko bada, orientazioari buruzko dokumentu nagusiak digitalizatuta daude, eta ikastetxeko ordenagailu batetik edo zenbaitetik eskura ditzakete irakasleek.	Hairerari, tutoretzari eta, beharrezko bada, orientazioari buruzko dokumentuak ikastetxeko sarean eskura ditzakete irakasleek eta irakasleek, erabilera-profilen arabera.	Hairerari, tutoretzari eta, beharrezko bada, orientazioari buruzko dokumentuak Interneten erabili daitezkeen web-aplikazio baten bidez eskura ditzakete irakasleek, irakasleek eta familiak.
IKT baliabideen erabilera	1.5.- Ikasgelarako jarduerak hautatzea	Irakasleen % 40k, gutxienez, irasleekin erabiltzeko unitate didaktiko digitalen eta/edo material digital osagarrien zerrenda eguneratua du bere programazioan.	Irakasleen % 90ek baino gehiagok irasleekin erabiltzeko unitate didaktiko digitalen eta/edo material digital osagarrien zerrenda eguneratua du bere programazioan.	Irakasleen % 90ek baino gehiagok irasleekin erabiltzeko unitate didaktiko digitalen eta/edo material digital osagarrien zerrenda eguneratua du bere programazioan.

2015eko azaroaren 26a, osteguna

Azpiprozesuak	Oinarritzko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
1.6.– Edukiak egokitzea eta gordailuak	Maila bakoitzeko arloen % 20n, gutxienez, irakasleek eduki digitalak sortu edo egokitu dituzte prozeduraren baten bidez, esaterako: edukiak itzultzea, baliabide digitalekin lotutako jardueren sekuentziak osatzea, arlo eta gaiaren erreferentziako webgune bat sortzea, eta egile-tresnen bitartez jarduerak sortzea. Baliabideak ikastetxearen esku daude.	Maila bakoitzeko arloen % 50en, gutxienez, irakasleek eduki digitalak sortu edo egokitu dituzte prozeduraren baten bidez, esaterako: edukiak itzultzea, baliabide digitalekin lotutako jardueren sekuentziak osatzea, arlo eta gaiaren erreferentziako webgune bat sortzea, eta egile-tresnen bitartez jarduerak sortzea. Baliabideak ikastetxeko sarearen bidez partekatuta daude.	Maila bakoitzeko arloen % 90en, gutxienez, irakasleek eduki digitalak sortu edo egokitu dituzte prozeduraren baten bidez, esaterako: edukiak itzultzea, baliabide digitalekin lotutako jardueren sekuentziak osatzea, arlo eta gaiaren erreferentziako webgune bat sortzea, eta egile-tresnen bitartez jarduerak sortzea. Baliabideak hezkuntza-komunitate guztiarekin partekatuta daude.
1.7.– Oinarritzko baliabideak erabiltzea	Bideo-proiektorea, ordenagailua eta sarrerako sarbidea ohiko baliabideak dira egunerokotasunean, eta arlo guztiakotako saioen % 10en, gutxienez, erabili behar dira.	Bideo-proiektorea, ordenagailua eta sarrerako sarbidea ohiko baliabideak dira egunerokotasunean, eta arlo guztiakotako saioen % 40n, gutxienez, erabili behar dira.	Bideo-proiektorea, ordenagailua eta sarrerako sarbidea ohiko baliabideak dira egunerokotasunean, eta arlo guztiakotako saioen % 80n, gutxienez, erabili behar dira.
1.8.– Multimedia-baliabideak erabiltzea	Maila bateko arlo guztien % 30, gutxienez, irakasleek edo ikasleek bildutako edo sortutako multimedia-baliabideak (bideoak, audioak, irudiak...) erabiliz osatzen da.	Maila bateko arlo guztien % 50, gutxienez, irakasleek edo ikasleek bildutako edo sortutako multimedia-baliabideak (bideoak, audioak, irudiak...) erabiliz osatzen da.	Maila bateko arlo guztien % 90 baino gehiago irakasleek edo ikasleek bildutako edo sortutako multimedia-baliabideak (bideoak, audioak, irudiak...) erabiliz osatzen da.
IKT baliabideen erabilera	Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera, ikasgelan lantzen diren arloen % 20n, ikasleek baliabideak (blogak, webguneak, hodei-biltegiak, webquestak) erabiltzen dituzte, edo web-tresnekin sortzen dituzte.	Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera, ikasgelan lantzen diren arloen % 50en, ikasleek baliabideak (blogak, webguneak, hodei-biltegiak, webquestak) erabiltzen dituzte, edo web 2.0 tresnekin sortzen dituzte.	Lehen Hezkuntzako 5. mailatik aurrera, ikasgelan lantzen diren arloen % 90en, ikasleek baliabideak (blogak, webguneak, hodei-biltegiak, webquestak) erabiltzen dituzte, edo web 2.0 tresnekin sortzen dituzte.
1.10.– Ikaskuntza Ingurune Birtualak (IIB) erabiltzea	DBHko 1. mailatik aurrera, ikastetxeak Ikaskuntza Ingurune Birtual (IIB) bat du; bertan, arloen % 30ek, gutxienez, unitate didaktikoren bat garatu du, ikaskuntza-ingurune birtualeko arketekin.	DBHko 1. mailatik aurrera ikasgelan garatzen diren arloen % 40k, gutxienez, jarduera bat garatu du Ikaskuntza Ingurune Birtualean (IIB) ikasturteko unitate didaktiko bakoitzeko.	DBHko 1. mailatik aurrera ikasgelan garatzen diren arloen % 60k baino gehiago jarduera bat garatu du Ikaskuntza Ingurune Birtualean (IIB) ikasturteko unitate didaktiko bakoitzeko.

2015eko azaroaren 26a, osteguna

Azpiprozesuak		Oinarritzko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
	1.11.– Batera bilzea	Ikastetxeak instalazio eta baliabideak jartzen ditu ikasleen esku, Internet eta tresna ofimaticoak libreaki eta norik bere gogoz erabiltzeko; ikasturtean zehar, 100 orduz, gutxienez.	Ikastetxeak instalazio eta baliabideak jartzen ditu ikasleen esku, Internet eta tresna ofimaticoak libreaki eta norik bere gogoz erabiltzeko; ikasturtean zehar, 130 orduz, gutxienez.	Ikastetxeak instalazio eta baliabideak jartzen ditu ikasleen esku, Internet eta tresna ofimaticoak libreaki eta norik bere gogoz erabiltzeko; ikasturtean zehar, 160 orduz, gutxienez.
Prestakuntza	1.12.– Prestakuntza-plana	Irakasleen gaitasun digitala garatzeko prestakuntza-plan bat dago.	Aurretiko dokumentu bat dago, euskairri digitalean; bertan, ikastetxeak berak zehazten ditu ikastetxeko irakasleek eta irakasle ez diren langileek zer gaitasun garatu behar dituzten, eta, horrez gain, lagungarria da urteko prestakuntza-plana egiteko.	Aurretiko dokumentu bat dago, euskairri digitalean; bertan, ikastetxeak berak zehazten ditu ikastetxeko irakasleek eta irakasle ez diren langileek zer gaitasun garatu behar dituzten, eta, horrez gain, autoebaluazioa egiteko adierazleak ditu.
Berrikuntza	1.13.– Metodologia eta irakaskuntza-kudeaketa berritza	Ikastetxearen urteko planean eta/edo kudeaketa-planean aintzat hartzen dira berrikuntza metodologikoa edota irakaskuntza-kudeaketaren berrikuntza helburu duten ekintzak, IKTen erabileran sustengatuak.	Ikastetxearen urteko planean eta/edo kudeaketa-planean aintzat hartzen dira berrikuntza metodologikoa eta irakaskuntza-kudeaketaren berrikuntza helburu duten ekintzak, IKTen erabileran sustengatuak.	
	1.14.– Berritzeko lankidetzak		Ikastetxeak beste erakunde batzuekin (beste ikastetxe, erakunde edo enpresa batzuekin) esku hartzen du berrikuntza metodologikoaren proiektuetan edo irakaskuntza-kudeaketaren berrikuntzan.	Ikastetxeak beste erakunde batzuekin (beste ikastetxe, erakunde edo enpresa batzuekin) esku hartzen du berrikuntza metodologikoaren proiektuetan eta irakaskuntza-kudeaketaren berrikuntzan.

## 2.- Administrazio-prozesuak

Azpiprozesuak	Oinarriko maila	Tarteko maila	Maila aurreratuak
2.1.- Nahitaezko agiriak	Ikastexerako derrigorrezkoak edo garrantzikoak diren dokumentuak (Ikastexearen Hezkuntza Proiektua, Ikastexearen Urteko Plana, Antolamendu eta Jarduera Araudiak, zirkularrak eta dekretuak...) digitalizatuta eta irakasle guztien eskura daude, ordenagailu batean edo zenbaitetan.	Ikastexerako derrigorrezkoak edo garrantzikoak diren dokumentuak (Ikastexearen Hezkuntza Proiektua, Ikastexearen Urteko Plana, Antolamendu eta Jarduera Araudiak, zirkularrak eta dekretuak...) digitalizatuta eta irakasle eta ikasle guztien eskura daude, ikastetxeko sarean.	Ikastexerako derrigorrezkoak edo garrantzikoak diren dokumentuak (Ikastexearen Hezkuntza Proiektua, Ikastexearen Urteko Plana, Antolamendu eta Jarduera Araudiak, zirkularrak eta dekretuak...) digitalizatuta eta irakasle, ikasle eta familia guztien eskura daude, Interneten bidez.
2.2.- Irakasleen ordutegiak kudeatzea	Ordutegiei eta zainzaldiei buruzko informazioa formatu digitalean eta irakasle guztien eskura daude, ordenagailu batean edo zenbaitetan.	Ordutegiak eta zainzaldia aplikazio baten bidez egiten dira, eta informazioa irakasle guztien eskura dago, ikastetxeko sarean.	Ordutegiak eta zainzaldia aplikazio baten bidez egiten dira, eta informazioa irakasle guztien eskura dago, Interneten bidez.
Ikastexearen planifikazioa eta antolaketa	Ikastetxeak formatu digital editagarrian erregistratuta izan behar ditu hauei buruzko dokumentuak: Ikasle-taldeen zerrendak. Talde bakoitzaren ordutegia eta irakasgaiak. Irakasleen ordutegia eta eman beharreko irakasgaiak. Bisiten ordutegia (familien harrera). Ikastetxeko baliabide fisikoak ordutegia. Esaterako: laborategiak, informatika-gelak, liburutegia, eta ingelesko gela.	Ikastetxeak formatu digital editagarrian eta, profilen arabera, ikastetxeko sarean eskuratzeko moduan erregistratuta izan behar ditu hauei buruzko dokumentuak: Ikasle-taldeen zerrendak. Talde bakoitzaren ordutegia eta irakasgaiak. Irakasleen ordutegia eta eman beharreko irakasgaiak. Bisiten ordutegia (familien harrera). Ikastetxeko baliabide fisikoak ordutegia. Esaterako: laborategiak, informatika-gelak, liburutegia, eta ingelesko gela.	Ikastetxeak erregistratuta eta, erabiltzailearen profilen arabera, Interneten eskuratzeko moduan izan behar ditu hauei buruzko dokumentuak: Ikasle-taldeen zerrendak. Talde bakoitzaren ordutegia eta irakasgaiak. Irakasleen ordutegia eta eman beharreko irakasgaiak. Bisiten ordutegia (familien harrera). Ikastetxeko baliabide fisikoak ordutegia. Esaterako: laborategiak, informatika-gelak, liburutegia, eta ingelesko gela.
2.4.- Espazioak kudeatzea	Espazio fisikoan eta baliabideen erreserbak kudeatzeko, formatu digitalean dagoen txantilo erako dokumentu bat bete behar da.	Espazio fisikoan eta baliabideen erreserbak aplikazio informatiko baten bidez kudeatzen dira, eta aplikazio hori ikastetxeko edozein ordenagailutatik erabili daiteke.	Espazio fisikoan eta baliabideen erreserbak aplikazio informatiko baten bidez kudeatzen dira, eta aplikazio hori ikastetxeko nahiz ikastetxetik kanpoko edozein ordenagailutatik erabili daiteke.

2015eko azaroaren 26a, osteguna

Azpiprozesuak	Oinarritzko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
2.5.– Liburutegia / Mediateka	Bibliografia- eta multimedia-baliabideen kudeaketa aplikazio informatiko baten bidez egiten da.	Irakasle eta ikasleek ikastetxeko sarean kontsulta ditzakete bibliografia- eta multimedia-baliabideak.	Irakasle, ikasle eta familiek, erabiltzaileen profilen arabera, Interneten bidez kontsulta ditzakete bibliografia- eta mediateka-baliabideak.
2.6.– Inbentarioa	Ikastetxeak formatu digitalean jasotzen ditu inbentariatu beharrekotzat dituen edo horretara derrigorrituta dagoen tresnak.	Inbentariatuak elementuak ikastetxeko sarean kontsulta daitezke.	
2.7.– Mantentzea	Ikastetxeko mantentze-lanen kudeaketa (informatikoa, mekanikoa, elektrikoa...) formatu digitalean dagoen txantiloierako dokumentu baten bidez egiten da.	Ikastetxeko mantentze-lanen kudeaketa (informatikoa, mekanikoa, elektrikoa...) egiteko protokoloa dokumentu batean azaldu da, eta ikastetxeko sarean dagoen aplikazio informatiko baten bidez egiten da.	Ikastetxeko mantentze-lanen kudeaketa (informatikoa, mekanikoa, elektrikoa...) egiteko protokoloa dokumentu batean azaldu da, eta Interneten bidez egiten da.
Aktiboak eta azpiegitura	2.8.– Segurtasun-kopiak	Idatziko dokumentu bat dago, segurtasun-kopiak egiteko protokoloa eta datuak berreskuratzeko prozedura zehazten dituena.	Idatziko dokumentu bat dago, segurtasun-kopiak egiteko protokoloa eta datuak berreskuratzeko prozedura zehazten dituena. Kopiak egiaztatze aldia zehazten da, eta egiaztatpenen erregistro bat dago. Segurtasun-kopiak zerbitzariak bestelako toki batean daude (beste lokal batean).
2.9.– Informazioa eskuratzearen kontrola	Administrazio-izaerako agiriari edo kudeaketa-agiriari dagokienez, dokumentu batean zenbait gairi buruz hartutako erabakiak azaltzen dira, adibidez: zer informazio gorde behar den, non eta nork eskuratu ahal izango duen.	Administrazio-izaerako agiriari edo kudeaketa-agiriari dagokienez, dokumentu batean zenbait gairi buruz hartutako erabakiak azaltzen dira, adibidez: zer informazio gorde behar den, non eta nork eskuratu ahal izango duen. Erabiltzaileek plataformak eta ikastetxearen berezko inguruneak erabiltzeari erreferentzia egiten zaio.	
Ekonomia	2.10.– Ekonomiaren kudeaketa eta plangintza	Ikastetxeko ekonomiaren kudeaketa eta plangintza aplikazio informatiko baten bidez egiten da.	Ikastetxeko ekonomiaren kudeaketa eta plangintza aplikazio informatiko baten bidez egiten da, eta aplikazio hori Interneten bidez erabil daiteke.

Azpiprozesuak	Oinarritzko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
Berrikuntza	2.11.– Berrikuntza kudeaketa administratiboan	Ikastetxearen urteko planean eta/edo kudeaketa-planean aintzat hartzen dira kudeaketa administratiboaren berrikuntza helburu duten ekintzak, ICTen erabileran sustengatuak.	

### 3.– Informazio- eta komunikazio-prozedurak

Azpiprozesuak	Oinarritzko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
Ikas-prozesuari edo prozesu akademikoari buruzko komunikazioa eta informazioa	3.1.– Ikasgelako ekitaldiak	DBHko 1. mailatik aurrera, irakasleen % 50ek, gutxienez, mezularitza-sistemaren bat eta ikasgelako agenda digitala erabiltzen du ikasleei ikasgelako hainbat gairi buruzko informazioa emateko (azterketak, bisitaldiak, lanak...).	DBHko 1. mailatik aurrera, irakasleen % 90ek hainbat web-aplikazio erabiltzen ditu ikasleei ikasgelako hainbat gairi buruzko informazioa emateko (azterketak, bisitaldiak, lanak...).
	3.2.– Ebaluazioa	Ebaluazio-emitzei buruzko informazio guztia, eta gainditu dutenen eta gainditu ez dutenen estatistikak (ehunekotan) txantilo digitaletan erregistratzen dira.	Emitzei eta estatistikei buruzko informazioa Interneten bidez kontsulta dezakete irakasle, ikasle eta familiek.
	3.3.– Agertzea eta notak	Notak eta hutsegiteak buletin edo txosten digitalen bidez komunikatzen zaizkie familiei.	Notak eta hutsegiteak komunikazio digitaleko sistema baten bidez (esaterako, posta elektronikoa edo SMS bidez) komunikatzen zaizkie familiei. Sistema tradizionalak hartzaileak eskatzen duenean baino ez dira erabiliko.

2015eko azaroaren 26a, osteguna

Azpiprozesuak	Oinarritzko maila	Tarteko maila	Maila aurreratua
3.4.- Erreklamazioak eta iradokizunak	Ikastetxeak erreklamazioak egiteko prozedura azaltzen duen dokumentu bat du, eta, horrez gain, dokumentu-eredu bat edo batzuk ditu formatu digitalean eskura daitezkeenak.	Ikastetxeak erreklamazioak eta iradokizunak egiteko dokumentu bat du, eta ikastetxeko edozein ordenagailutatik eskura daiteke. Horrez gain, erreklamazioak edo iradokizunak egiteko beste dokumentu-eredu bat edo batzuk daude, ikastetxearen webgunetik eskura daitezkeenak.	Erreklamazioak eta iradokizunak egiteko prozedurari buruzko informazioa eskola-komunitatearen eskura dago Interneten bidez. Erreklamazioak eta iradokizunak on-line inprimaki bat erabiliz egin daitezke.
3.5.- Barne-komunikazioa	Ikastetxeko barne-komunikazioak (deialdiak, aktak, ekimenak...) mezularitza-sistema digital baten bidez egiten dira, bide tradizionalak ere erabili arren.	Ikastetxeko barne-komunikazioak (deialdiak, aktak, ekimenak...) mezularitza-sistema digital baten eta agenda digitalaren bidez egiten dira.	Ikastetxeko barne-komunikazioak (deialdiak, aktak, ekimenak...) hainbat web-aplikazioaren bidez egiten dira.
Ikastetxeko komunikazio eta informazio orokorra	Hezkuntza-komunitatearekiko eta beste erakunde batzuekiko ikastetxearen kanpo-komunikazioa webgunearen bidez egiten da; hala ere, betiko bitartekoak ere erabiltzen dira xede horretarako.	Hezkuntza-komunitatearekiko eta beste erakunde batzuekiko ikastetxearen kanpo-komunikazioa posta elektronikoaren, agenda digitalaren eta webgunearen bidez egiten da.	Hezkuntza-komunitatearekiko eta beste erakunde batzuekiko kanpo-komunikazioa bi modutan egiten da: alde batetik, bi noranzkoko komunikazioa egiteko aukera ematen duten web-aplikazio batzuen bidez (hau da, erabiltzaileen iruzkin eta ekarpenak jaso daitezke), eta bestetik, harpidetzen bidez.